

Goibekokale

1996ko martxoa. 11

ELGETAKO ALDIZKARIA



F. IRIBAR
SALBADOR 9-1ª EZK.

URTEBETE

Maderas Gallastegi, s.a.

MENDI UZTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA
Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (Bizkaia) Tel. eta faxa: 6583061.

ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inzialak edo gaitzizena agertuko dira. Ez da komeni eskutitzen luzera 15-18 lerro baino luzeagoa izatea. Bidali sobrean *Goibeko kale* ipinita edo bota udaletxe azpiko buzoira.

Eskerrikasko Elgetar guztioi

Erreza zen lehenengo alea ateratzea, beharbada baita bigarrena ere. Guk ordea, mila biztanleko herri batean aldizkaria hileroko irakurgai izatea lortu dugu jende askok uste zuenaren kontrara. Eskerrikasko modu batera edo bestera lagundu duzuteno. Ezin ahaztu *Goibeko kale* iragarri direnak, gehienek (banakaren bat kenduta) proiektuan sinistu eta izenpetua zuten kontratua berritzute baitute.

Urtebete pasatu arren, oraindik hasiberriak gara lan honetan. Hanka-sartzeak ez dira faltako baina ardoa egunen joan-etorriarekin hobetzen den moduan guk ere hobera egitea espero dugu.

Zuek zarete hobetzen lagunduko diguzuenak. Horretarako, aldizkari honekin jaso duzun inkesta betetzea eta guregana helaraztea eskertuko genizueke. Udaletxe azpian jarriberri dugun buzoira bota dezakezue inkestaxoa edo posta bidez bidali.

Eta etorkizuna? Hilero-hilero lau orrialde gehiago, tirada 600 alera handitu, Jende gehiago lanean, Angiozarko partia Angiozartik, udaletxeak emandako lokal berria (Kultur etxean), diru laguntza eta materiala heltzear... Guzti horrek aurrera jarraitzeko animatzen gaitu. Hasi gara hurrengo alea nola egin pentsatzen eta zuek zarete horretara bultzatzen gaituzuenak.

Eskerrikasko

Erredakzio kontseilua



labarria

AUTOBUSAK

San Juan, 18

48230 Elorrio (Bizkaia)

Telefonoak:

94 - 623 16 47 (Bulegoa)

94 - 658 21 55 (Etxekoa)

Tel. Mugikorra

908 - 67 52 56 (Eibar)

Goibekokalek urtebete.

Dagoeneko egin dugu urtebete eta 12 ale hauek dira horren lekuko. Gero eta etxe gehiagotara heltzen ari gara eta hori seinale ona da zalantzarik gabe. Aleak, modu guztietakoak izan dira eta hankasartzeak egon direla ezin ukatu. Berrikuntzak ere izan ditugu: Errezetak, inguruko baserrien nondik-norakoa, Angiozarri zuzendutako orrialdea... 4 orrialde gehitzeak esfortsu handia suposatu du eta honetarako jende gehiagoren partehartzea ezinbestekoa izan da. Mugimendu hau, aldizkaria bizirik dirauen seinale da eta horrek pozten gaitu.

Baina, nola ikusten duzu *Goibekokale*?

Aldizkari honi buruz duzun **benetako iritzia** jakin nahi genuke. **Trukean**, birentzako **afaria** zozketatuko dugu. Inkesta anonimoa da, baina afariaren zozketan parte hartu nahi baduzu, jarri zure izen-abizenak eta telefonoa. Pazientzia pixka bat hartuz, eskertuko genizuke galderak erantzun, proposamenak egin, iritzia eman, etab. egitea.

Inkesta edonork bete dezake eta etxeko pertsona bat baino gehiagok bete nahi balu, orrialde hauek fotokopiatu edo zuzenean guri beste bat eskatzea besterik ez duzue. Inkesta, udaletxe azpian dugun buzoira bota aurrekaldean *Goibekokale* jarrita.

Aurrez eskerrikasko.

Zuen laguntza ezinbestekoa da.

Irakurlearen datuak

Adina _____ Lanbidea _____ Sexua: Giz. _____ Emak. _____
Ikasketa maila: _____ Euskera maila: Euskaldun zahar alfabetatugabea _____
Euskadun zahar alfabetatua _____
Euskara ikaslea _____
Euskaldun berria _____
izen-abizenak: _____
Nahi izanez gero

Goibekokale atalez atal

Ale guztiak kontutan hartuz, 1etik 10erako puntuazioa eman atal bakoitzari. Komentariorik egin nahi baduzu idatzi azpikaldean.

0 eta 1: Oso txarra. 2 eta 3: Txarra. 4: Eskasa. 5: Nahiko ona. 6: Ona. 7 eta 8: Oso ona. 9 eta 10: Bikaina.

- Kartak _____

-Kolaboratzaileak _____

-Elgetako partia_____

-Jentrebistak_____

-Ajenda_____

-Bapatian_____

-Horroroskopua_____

-Erreportaia/ Elkarrizketa_____

-Ikastola_____

-Lehiaketa_____

-Komikia_____

-Kirolak_____

-Elgetako euskeran_____

Erretratua_____

Lau orrialde berriak: 1-_____ 2-_____ 3 eta 4-_____

1-Erreztak.....

2-Angiozarren zer.....

3 eta 4-baserriak.....

Itxura

Nolakoa iruditzen zaizu aldizkariaren itxura orokorra?

Zer iritzi daukazu argazkiei buruz?

Gustatuko al litzaizuke portadako argazkia koloretan izatea?

Bestelako oharrak, letra mota, diseinua, maketazioa...

Inoiz parte hartu al duzu aldizkarian? (Lehiaketak, oharrak, eskutitzak...).....Zergaitik ez?

Zerbaitetan kolaboratzeko prest al zaude? Zertan? (banaketan, atalen bat idazten, publizista anetan...)..... Prest bazaude, eman izena eta telefonoa:

Banaketa

Gustora al zaude banaketa moduarekin? Proposamenik?

Etxean zenbat pertsonak irakurtzen dute aldizkari bera?

Zer deritzozu aldizkaria dohain izateari?

Zer deritzozu aldizkaria korreo bidez kanpora bidaltzea? Kobratu behar al genuke?

Informazioa

Zure ustez herriko gertaeren informatzaile ona al da *Goibekokale*? Zertan hobetu behar luke?

Ematen dugun informazioa objetiboki edo subjektiboki emana dela iruditzen zaizu? Zergatik?

Sexuren batekiko gutxiezpena dagoela iruditzen al zaizu?

Oreka ideologikoa mantentzen al da informazioa ematean?

Zeri buruz gustatuko litzaizuke gehiago informatzea?

Euskara

Zer iruditzen zaizu erabiltzen dugun euskara? (ulerterreza, zail samarra, zaila...)

Bestela irakurtzeko ohiturarik ba al duzu? Zer?

Ze pentzatzen jatzu Elgetako euskeria erabiltzia? Leitzeko erraza da edo ez?

Euskalkixak hartzen daben lekua haundixa da? (bapatian, jentrebistak, Elgetako euskeran...)

Publizitatea

Fijatzen al zara gure aldizkarian azaltzen den publizitatean?

Aldizkaria publizitatea egiteko bide egokia dela uste duzu?

Zure ustez publizitatea nola landu beharko litzateke?

Ordainduko al zenuke aldizkaria? Zenbat? (50pta, 100pta, 150pta...)



Ezkur-urtea

Elurra mara-mara ari da, zuritu du mendia... Horrela dio kantak eta aurten behintzat horrela izan dela aitortu behar. Aspaldi ez dugu halako elurterik ikusi eta ia ahaztuta geeneuzkan oroitzapenak ekarri dizkit bat-batean.

Gogoratzen dut mutikoa nintzela zelako ondo pasatzen genuen Elgeta zuri-zuri gelditzen zenean. Orain ez dakit baina, orduan, esnatu orkuko jakiten nuen nik, inork esan gabe, Elgeta elurrez tapauta aurkitzen zela.

Ez zen inongo zaratarik entzuten, Ixiltasuna izaten zen nagusi. Ez autorik, ez gurdirik, ez astorik. Denbora gelditu egiten zela zirudien. Halako batean, oheko izaren epeltasunetik irtetzeko baino nagiago nengoenean, elizako erlojuaren kanpai-hotsa entzuten nuen eta orduan bai seguru egoten nintzela. Kanpai-hotsa inoiz baino motelagoa izaten zen, ixiltasunarekin bat egitea nahi izango balu bezala. Orduan hasperenak astindu eta saltoka jeikitzen nintzen, "elurra, elurra!" deiadarka.

Hamabi urtetik aurrera Eibarrera joaten nintzen ikastera eta uste dut egun baten ere ez nuela kale egin elurratik. Gehienetan metro erditik gorako elurtea egiten zuen baina hamarrak alderako eskolan izaten ginen. Ez dakit nola konpontzen ziren Olabarriatarrak baina Leonen autobusa han azaltzen zen, egunero bezala, eta elizaurreko jardinetan elur-pelota batzuk bota ondoren autobusera igotzen ginen oinetako eta esku bustiekin.

Autobusa poliki-poliki abiatzen zen eta Sanrokeostera orduko Siberian geundela iruditzen zitzaigun, nahiz eta orduan Siberia non zegoen ez jakin. Pesimista batzuk ez ginela iritsiko esaten bazuten ere baikorrak gehiago izaten ginen.

Aurtengo elurtea ikusirik badirudi urte aberatsa, garitsua, oparoa eta ezkurrez betea izango dugula. Elur-urte, Ezkur-urte entzuna diot aitari eta, hala bada, aurtengo ezkurak *Goibekokale* aldizkariari eskaini nahi dizkiot, bere urtebetetzean, denak behardo ditu eta. Zorionak eta ezkur-urte on.

A. Agirreazaldegia



Hiakutake

Dagoeneko ikusi ezina da gure zeruetan Hiakutake izar-buztanduna. Neuk ahal dizan doten egun guztietan jarraitu dotzat, halako miresgarritasun bat sortzen

eban eta niregan hori izarroi ikustiak. Halako agertziak etorkizuneko gertaera harrigarriren bat anunziatzen ei eben lenago, eta oraingo egunetan be horren esperantziak begiratzen notzan, unibertsoak daukan haunditasunean gure txikitasunaz konturatuta.


Gizakiak beti kanpotik datorrenari eduki izan dotzan bildurra haundia izan da, batez be gure txikitasunaz konturatzen bagara. Norberak daukazen gogo, desio eta esperantzak; bakotzak berarentzan amestu daben etorkizuna kanpotik bertan behera bota leikela jakitziak bildurra ez eze amorrua be sortzen dau.

Guretariko bakotxakin gertatzen dana beste maila baten herri txikixekin be gertatzen da. Eskola berri bat ilusiOo haundienaz jaso leike, handik urtebetera lege aldaketa batek herriko ikasle gehienak beste herri batera derrigorrez bidaltzeko eta hainbeste kostatako eskolia erdi hutsik lagatzeko. Ekologiaren mesedetan, denon osasunaren alde, ur-zikinen depuragailu bat ipini zeinke errekoa garbi egon dein eta urte bi baino lehen tren batek bailara dana txikituko dabela jakin arazten dotzue. Etxe barrixak Angiozarrren egingo doitxuela sinistuta zarenian, jendia bertara ezkondu eta bertan biziko dala pentsatzen dozunian, bildurrez zare ia ez ete dan oinguan be dana amets bat besterik izango.


Dana dala neuk etxe barrixa ezin erosi, fan dan domekan mendi-buelta bat emotera joan eta kukua entzun neban poltzikuan txakur haundi bat be ez neukala arrapauaz. Hiakutake kometioi zori-oneko mezularia izan deila da nere azken esperantzia, Gabonetan ez baina Andra Mari Martiko inguruan ibili da zeruetan, eta guretik, Elixamendi aldera ikusten zan behintzat..

J. A. Mikeo

Argitarapen honen edizioko laguntzailea



kutxa fundazioa



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honen argitaratzailea

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Laguntza berezia:** Ozkarbi elkarte. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal **Koordinatzailea:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Oxel Erostarbe, Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Eider Sarasua eta Iker Irazabal. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Argazkien errebelazioa:** Txuri-Beltz argazkizale taldea. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Alberto Agirreazaldegia, J. A. Mikeo, A. Telleria eta E. Gorrotxategi **Administrazioa:** Esti Retolaza eta Susana Jimenez. **Publizistak:** Onditiz Billa eta Eider Etxaniz (Tel: 768019). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 600 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurre akordioa Goibekokale eta Udaletxearen artean

Hainbat bileraren ondoren akordio batera iritxi dira udaletxearen ordezkari eta aldizkariaren partaideak. Ezer sinatu gabe badago ere aurre akordio bat dago; laguntza ekonomiko bat eta lokal berri bat izatea, mantenu lanak ere udalaren esku egongo zirelarik. Beraz guxti barru aldizkariaren egoitza kultur etxeko bigarren solairuan egongo da, eta aldizkaria ateratzen den hilabete bakoitzeko 30.000 pta emango zaizkio aldizkariaren gastuei aurre egiteko.

Trikitixa eskolaren 5. urteurrena

Udaletxeko egoitzetan hainbat neska-mutikok ikasten dute soinua jotzen eta aurten Adolfo Jaurrietaren agindupean 5 urte betetzen dituzte, apirilaren 11ean hain zuzen ere. Egun hau ospatzeko asmoz, apirilaren 18an kalejira egingo dute eskolako ikasleek, arratsaldeko 6etatik 8ak bitartean. Ondoren, Ozkarbi elkartearen afalduko dute.

Mezak Aste Santurako

Andre Mariaren Parrokiak honako egitaraua du Aste Santu honetarako: Ostegun Santuz: Goizeko 9etan gorespenak, arratseko 6etan azken afariko ospakizunak eta gaueko 9etan, ordu santua. Ostiral Santuz: Goizean 9etan gorespenak, 11etan gurutz bidea, eta arratseko 5etan Jesusen heriotz ospakizuna. Larunbatez: 9etan gorespenak eta gaueko 10:30etan Jesusen piztuerako gau bela eta ondoren txokolatada. Pazko Igandez: meza bakarria egongo da eguerdiko 12etan.

ANA SOUSA, KULTUR DINAMIZATZAILE BERRIA

Apiriletik aurrera kultur dinamizatzaile berria lanean hasiko da. Urte betez German Meabebazterretxea lan honetan izan den arren, lekukoa Ana Sousari utzi dio.

1995eko martxoan, German Meabebazterretxea elgoibartarrak oposaketetan puntuazio gorena lortuta, Elgetako dinamizatzaile izendatua izan zeneta urte beteko kontratua lortu era honetara. Kontratua hilabete honetan bukatzen zitzazenez, eta berritzeko ziurtasunik ematen ez ziotenez, Oñatiko udaletxean lan postu berdinerara aurkeztu zen. Orain Oñatiko udaletxeak lanpostu hori eskeini dio, kultur teknikari bezala. Germanek adierazi digunez, aldaketa honek "reto pertsonal berri bat suposatzen du". Oñatin ere bertako aldizkariaren nondik norakoak gainbegiratu beharko ditu, eta honelako herri batean, kultur mailako ekintza gehiago egiteko aukera ikusten du.

Elgetako esperientzia positibotzat ikusten du baina, herri txiki batean muga asko daudela esan digu. "Kulturako batzordeak ez du diru asko izaten, eta gutxiarekin asko egin behar izaten da. Gainera, kulturaren gastatu dezakegun diruak, ez du dirurik ekartzen, orduan, badirudi ez duela emaitzik. Gizartearen joera emaitzak dirutan kontatzearena da".

Kultur teknikari bat izate-

ak muga asko jartzen ditu, diru ezak eta gastu haundiak Elgeta bezalako udaletxe bati. Germanen ustetan, laster, "udaletxe guztiek izango dute dinamizatzaile edo kultur teknikari bat, baina herri txikienek ezingo dutenez honelako bat urte guztian mantendu, pertsona bat jarriko dute zenbait udaletxetarako".

Teknikari berriaren txanda.

hasiberri den Ana Sousak, astean birritan egingo du lan. Germanen arazo berak izaten jarraituko du diruari dagokionez, aurrekontuak murrizten baitoaz urtez urte.

Kultur teknikari berriaren asmo eta helburuetako bat, kultur etxeari bizitasun pixka bat ematea da. Honetarako, aldizkariarentzat toki bat jarri du egoitza honetan: "toki asko dugu, eta urtean zehar ez da ia erabiltzen, horregaitik, aldizkaria bertan egotea oso ideia ona da". Hortaz gain jendearen partehartzea bultzatu nahi dut ekintza desberdinetan parte hartu eta kolabora dezan".

Beste arazo bat ere badu. Elgetak ez du legezaturik toki bat kontzertuak, antzerkiak edo antzeko kultur ekintzak egin ahal izateko. Horregaitik eta auditoriuma martxan ipintzeko aukera eta aurrekonturik ez dagoenez, frontoian, behar diren egokipen lanak egin daitezkeela uste du, behin-behineko irtenbide bat aurkitzeko.

"Helburuetako bat, jendearen partehartzea lortzea da, konpromezu bat lortu nahi dut talde desberdinekin".

ZELETA JATETXEA

IÑAKI GOROSTIZA

Eguneroko eta kartako menua
San Roke 2 .Tel: 768151



Galdaragintza arina
Hoditeria
Erremitteritza
Soldadura homologatuak

Antonio Rodrigues Da Cruz


BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA
Tel: 76 81 01 Faxes: 78 90 14

NEGUKO HIRUGARREN MOTOR TOPAKETA ELGETAN



Motorrak protagonista nagusiak izaten dira egun honetan. Ikuskizun ederra afizionatuentzat batipat.

Moto Club Arratek, hirugarren urtez, neguko motor topaketa antolatu du Elgetan. Otsaileko elurteen ondorioz atzeratu bazen ere, azkenean eguraldia lagun izan dute eta neguko kontzentrazioak eman beharrekoak eman ditu.



Gazte zela gurasoek erosi zioten motorra. Dirurik ez du berri batentzat.

Urtean zehar honelako beste bat antolatzen du talde honek; bigarren hau uztailan izaten da Eibarren.

Topaketa hauetara, penintsula osoko partaideak etortzen dira eta deialdia toki guztietara zabaltzeko aldikari baten ("Motociclismo") jartzen dute eguna eta tokia, egitarauarekin batera. Deialdi honi erantzunez, 80 partaide inguruk eman

du izena eta beste hainbat motorrak.

Roberto Fernandez eta Jose Antonio Conde izan dira Moto Club Arratetik, topagune hau antolatu dutenak. "Balantzea oso positiboa da; Partehartzaileak pasadan urtean baino gutxiago badira ere". Elgetan bildutakoaren artean "giro jatorra" egon zela adierazi dute eta elgetarrak ere gogoz aritu zirela galderak eginez, batik bat eta toki guztietan ohi denez, gazteenak interes handia omen dute. Gaueko festan herritar askok parte hartu zuela atzeman zuten.

Motor asko eta zein baino zein disdiratsua goa; kontzentrazio honetan lagun zaharrak agurtu eta berriak egiteko aukera izan dute. Alde batera utzi gabe eta ohiturari jarraituz, materiala ezagutzeko toki aproposak dira ekintza hauek eta mekanika eta makinak dira hitz nagusiak.

Intxorta elkartearen 25. urteurrena


1969. urtean sortutako elkarte honek, martxoko azken asteburuan zilarrezko ezteiak ospatu ditu. Azpimarragarriena, bandera berria da: Lujuko monjek egin dute eta hemendik aurrera, elkartearen ordezkatzeko duena izango da. Larunbatez, bandera berria jaso zuten eta igo zuena, elkartearen eratu zuten kideetako bat izan zen, Francisco Aranzabal Albistegi. Eguna bazkari eder batekin eta erromeriarekin amaitu zuten.

Lokala Gazte Asanbladarentzat

Ia 3 urte ondoren udalak lokal bat utzi dio Gazteen Asanbladari. Martxoaren 19an eskola txikiak "okupatzea" pentsatu zuten eta honen ondoren udalak egoitza hau ematea pentsatu du. Gazte Asanblada ekintza ugari egiten ari denez toki propio baten beharrez gozoen. Laister lokalaren egokipen lanetan hasteko asmoa dute.

Ozkarbin sukaldaritza ikastaroa

Oñatitik etorriko den profesional batek emango du ikastaro hau. Izena emateko epea zabalik dago apirilaren 15 arte. Partaide kopurua jakitea ezinbestekoa da ikastaroa ondo antolatuta gelditu dadin. Elkarteko kideak sarreran dagoen kortxoan ipini dezakete izena eta kide ez direnak ere aukera zabalik dute, horretarako izena Garbiñe Ormaetxeari eman behar zaio. Herrira begira egindako ekintza dela esan dute antolatzaileek. Asko ikasi eta on egin.



Jesús Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK

Artekale 3.
Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELATAN

**E
R
HARATEGIA
A
S
T
I**

San Roke 6
Tel: 768168.

IBAIBARRIAGA
GARRAIOAK

E.Ibaibariaga
Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

ABIADURA HAUNDIKO TRENA

Aspalditik entzuten zen surrumurrua izan arren askotan sinistu ez eta beste batzutan etxondoan estazioa edukitzeak eskaintzen dituen abantailak baloratzen genituen Angiozarren. Izan ere beti ezagutu dugun trenarriuegi ez edukitzea gauza on bat izan leikela ezin da ukatu, baina zer gertatzen da norberan etxetik 50 metrora Europako trenbide korapilorik garrantzitsuenetarikoa egingo dutela jakin eta hor trenik inoiz ezingo duzula jakinean?

Euskal Herrian AHT-a eta horretarako behar diren azpiegitura guztiak egiteko erabaki politikoa 1989an hartu zuen Espainiako Gobernuak, Elkarte Autonomoko Gobernuak, Nafarroako Gobernuak eta Akitaniako Kontseiluen artean lortutako akordioan.

Ofizialki "Y grekoa" eta "H naparra" deitu izan dira proiektuak eta planteatzen duten eraikuntza 357 km trenbide berrirena da, denak 250-350 Km/orduko abiaduraz ibili ahal izateko modukoak. Guri dagokigunean "Y grekoa" deitutakoak Angiozarren edukiko duela bere erdigunea eta horrek sortzen dituen kalteak izugarri haundiak direla, abantailarik

ez dugularik oraindik ezagutzen inork ezingo baitu bertan ez igo ez eta jetxi trenetik.

Zeintzuk dira beraz tren berri hauen helburuak? Batez ere hiri haundiak elkartzea da bere helburu nagusia: Bilbotik Donostiara 37 minutu beharko dira, Gasteiztik Donostiara 32 minutu, Gasteiztik Bilbora 20 minutu, Donostiatik Iruñara 27 minutu. Eta tartean dauden herrietara zenbat? Tartean dauden herrietan ez da geldituko!!! Bestela nola hartuko luke abidurarik trenorrek!

Trenbide berria zati handi baten lurpetik joango litzateke eta Angiozar Bailaran ere horrela izago litzateke baina bost lekutan azaletik egingo luke bere bidea, horietako bat, bostehun bat metrotakoa "Intercomunicador" deitzen diotena delarik, hau da Y famosoaren erdia. Tren hau ezagutzen dugunok badakigu sortzen duen zarata ez dela txikia eta halako baialara hestu baten oraindik nabarmenagoa egiten dala.

Biloi bateko (miloi bat miloi) aurrekontua daukan azpiegitura errentagarria izan dakigukela pentsa dezakegu?

tzen diren km guztiak sortuko luketena non sartzea planteatzen den!


Trenbidea zazpi baserri- 50 metro baino gutxiagora pasatuko litzateke. Angiozarko kaletik 400 metro baino gutxiagotik, Azkunetatik 100 metro ere ez,... gainera trenbide hau, autopista bezala, alabrez itxitada, barrera efektua sortuz azaleratzen den lekuetan. Beste hainbat kalte ere

aipatu daitezke: biaduktoak, betelanak, alta tentsioaren kutsadura elektromagnetikoa, etabar.

Zer egin guzti honen aurrean? Biloi bateko (miloi bat miloi) aurrekontua daukan azpiegitura errentagarria izan dakigukela pentsa dezakegu? bitartean gure bailarako beste azpiegiturentzako ukatu egiten zaigunean miloi gutxitako laguntzak?


1995eko urtarrilean publikoki zabaldu zen Angiozarren orduan geneukan informazioa: nondik pasako den, nolako tunelak, zer eragin,... eta prozesu horretatik hartutako erabakien txostenak irten zuen, non Eusko Jaurlaritzako Garraio arduradunari iradokizun batzuk egiten zitzaizkion, guk ikusten genuen desegokitasuna eta txikizioa salatuz. Gainera kalteak gutxitzearen, beste alternatiba bat proposatzen genuen, gure ikuspegitik justuagoa: Beasain-Durango autobidearen alboan egitea interkanbiadorea Epele errekan. Dena Bergarako Udalarari bidali zitzaion haren bidez aurreproiektua burutzen dihardutenei jakinarazteko.

Harrezkero ez dago berririk. Beharbada Bergarako Udaletxean Maltzaga-Urbina autobidea egiteko itxoiten daude Gasteizera hurbiltzeko gure defentzan.





Lurpetik joatea askorentzat bentaja izan arren Angiozartik bi tunel haundik irtengo lukete: bata Aramaio aldera Udalaiz azpitik 6,5 km.takoa eta beste bat Eloorri aldera 4 km. t a k o a . Tunelak egitean sortzen diren eskorbok ugariak izanten dira, pentsa hemen egitea planteatzen

LEHIAKETA




Urteurrena ospatzeko, Elgetako Gazte Asanbladak hilero-hilero oparitzen duen kamisetaz gain, sorpresatxo bat ere badugu prestatuta. Sorpresatxo hori jasoko duena **Estibaliz Askasibar** izango da. Ez du zorte makala Estik, kamiseta eder horrekin batera bi lagunentzako afaria oparituko baitiogu. Lasai egon karta bidali arren esku hutsik geratu zaretenok, hemendik aurrera, kamiseta beharrean **afariak banatuko ditugu** eta. Bai-bai, ondo irakurri duzue! Lehiaketa jende nagusiagoarengana zabaldu nahi dugu, orainarte jaso ditugun eskutitzak adin guztietako jendeak bidaliak izan badira ere, bidaltzea pentsatu arren arkatza hartzea falta zitzaizuenengana zuzentzen gaitzaizkizue oraingo honetan.

Ozkarbi Elkartean afaldu eta kamiseta lortzeko, argazkian agertzen dena zer den eta non dagoen esan behar diguzue. Zuen erantzuna *GoibekoKalera* bidali posta bidez edo zuzenean udaletxe azpian jarri dugun buzoira. **Zorte on!**



Izena eta abizena: _____
 Erantzuna: _____
 Bizilekua eta telefonoa: _____

KOMIKIA



Zelan definituko ziñuke *Goibekokale*?



Ikaslea (19 urte)

Herriko informa-
ziñua urtetzen da jentia
enterau deiñ. Gaztiak hola
badake zerein bat, eta euren
helburuak lortzeko beste
bide bat da.




Jubilatua (70 urte)

Nik pentsatzen dot
herrixandako ona dala. Ta
bertan agertzen dien gau-
zak onak dia. Haber gaztiok
zeoze eitten dozen,
zaharrak ezin juau ta.



Langabetua (29 urte)

Nik irakurri baino
gehixau ikusi eitten dot; ez
dot eta asko entenditzen,
baina gauza asko interesan-
tiak dia. Gaztiak etaratzia
ondo pentsatzen jata,
txarrena da ez daukala
laguntza asko, Udalak ez
dau asko laguntzen eta.




Comerciala (26 urte)

Goibekokale ondo
dao, hori oportunitade bat
da periodismua ikasten
deben elgetarrendako. Inte-
resantia da deportiena.



Jubilaua (71 urte)

Ondo dao, herrixan
biha zan holako gauza bat,
gaztiei laguntzeko da.



Bihargina (50 urte)

Herrixandako ona
dan gaztien inizatibia da.
Goibekokale interesantia da,
danondako.

ANA LIBURUDENDA

LIBURUAK
JOSTAILUAK
ALDIZKARIAK
ESKOLARAKO TRESNAK

Salbador kalea 1, Tel: 76 80 78 Elgeta

HAIZEA TABERNA

Salbador 5 Tel: 768256 ELGETA

♈ Aries: Ikasi kakauetiak biadan moduan jaten... Eta bestela ez jan.

♉ Taurus: Pelotan jokatzia ondo dago baina beste gauzak be einbiadanerako ein.

♊ Geminis: Askotan ez zara juaten zinera. Entradiakin neskia emoten dabela?

♋ Cancer: Lehen ere neikua txorrada esaten dittuk eta ondio gehixau entzun bihar jitsuau?

♌ Leo: Astesantuan kristonak ein bihar dittuk... heuk be ez dok sinisten.

♍ Virgo: Noiz eruan dotzak hire lagunari kapullua? Noizean behin, akordautakuan behintzat bai.

♎ Libra: Siete... Esta quiero potente, egixa ete da?

♏ Escorpio: Horrenbeste futbol eta horrenbeste historixa. Badok ordua zeozetan hasteko.

♐ Sagitarius: Azukria baño dulziaua hago. Noizian behin ligau edo...

♑ Capricornius: Azukria baño dulziaua hago. Noizian behin ligau edo...

♒ Acuaris: Maixa eta Itziar, Itziar eta Maixa. Eta gu hemen musaraiñei begira.

♓ Piscis: Zer sartu dok giltza zuluau? Hobeto iñok ez sakatzia.

Maximo Bolinaga Txatarrerua (57 urte)

Noiztik lan honetan? 9urtian.

Zer eitten dozu batzen dozun txatarriakin?

Merke erosi eta karu saldu.

Gustatzen

jatzu zure

lana? Ba,

gustau asko

ez, baina ein

inbihar.

Seme-

alabek

laguntzen

dotzue

lanian? Bai,

semebirek.

Kamioi

txikixa ala

handixa?

Bixekin.

Badau-

kazu hobirik ?

Bai. **Zein?** Tiro

platua, jo ezebe

baina...

Zigarroa ala

purua? Purua.

Andrekin ondo

konpoltzen za? Bai, hori

bai.

Etxeko lanetan

parte hartzen dozu? Gutxi

Zenbat pisatzen dozu? 80 kilo.

Telebistia ala irratixa? Telebistia, gehixau.

Ze tailako zapatak erabiltzen dozu?

Berrogetabixa.

Janaririk

gogokoena?

Angulak,

baina karuak

dittuk eta.

Zein kolonia

erabiltzen

dozu? Igual

andrena be,

lehenengo

harrapatzen

dotena.

Goibekokaleko

horroroskopoa

sinisten dozu? Ez,

ez dot sinisten.

Libururik

irakurtzen dozuz?

Ez.

Goibekokale irakurtzen

dozu? Bai.

Zer da bertako

polittena? Erretratuak.



BOLATOKI

TABERNA-JATETXEA

Berezitasuna: Buztana.

Pintxo goxoak, otartekoak.

Elorrio bide z/g Elgeta. Tel: 943/768284.

BILTEGI DENDA

Kirol, Burdin, Menajea.

Zugandik gertu, behar duzun beste.

SALBADOR 24

Tel: 76 82 06

Erosle

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

LEGATZ BETEA

Sukaldaria: Eider Sarasua
(Elgetako Gazte Asanblada)



NOLA PRESTATU:

- Legatz solomoak hartu eta bitan egin.
- Txaka, ganbak, tipula eta arrautza gogorra ondo-ondo xehetu.
- Ondo xehetu eta gero tipula egiten jarri (su bajaran, bigundu artean), ondoren txaka eta ganbak bota eta su bigunez berotu.
- Sutik kanpo, kipula, txaka eta ganbak bexamelarekin nahastu arrautza gogorrarekin batera.
- Ondoren legatz solomo erdiak hartu eta gainean bexamelarekin eginiko nahastea jarri. Honen gainean beste solomoa.
- Bukatzeke irin eta arrautzetan pla-pla egin (rebozatu).

NAHI IZANEZ GERO, SALTSA ARROSAREKIN
HORNITU DAITEKE

OSAGIAK (2 pertsonentzako):

2 legatz solomo.

Legatza betetzeko:

100gr txaka.

100gr ganba.

1/2 kipula.

Arrautza gogor bat.

Bexamela.

Bexamelaren osagaiak:

1/2 litro esne.

45gr gurin.

55gr irin.

Pla-pla egiteko
(rebozatzeko): Irina,
Arrautza.Olioia.



Gomendioa: Legatza betetzeko osagaiak onak badira ziurtatuta dago kalitatea.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta

Tel: 768075-6 768225

Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA



*U*rte bat elgetarrekin eta betorkizuna aurrean


1995eko apirilean lehen alea atera genuenetik urte bete pasa da. Lan taldea osatzen dugun guztiok zorionak eman nahi dizkizuegu proiektu honetan sinistu duzuen guztioi eta era berean gurekin aurrer jarraitzen duzuenoi: kolaboratzaile, dendari, tabernari, enpresari, kultur talde eta orohar elgetar guztioi.

ILUSIOZ ETA BAIKORTASUNEZ EGIN DUGU BIGARREN URTEA

Fase gogorrena

Goibekokaleren egitasmoa duela urte bat egi bihurtu bazen ere, lanean hilabete asko eman genituen: aldizkaria diseinatzen, lan-taldea osatzen eta batik-batik ikasten. Kontutan izanik inor ez zela herri aldizkarigintzan aritu, hainbat bilera egin genituen inguruko aldizkariekin eta udaletxe ezberdinetako arduradunekin. Edukiak, diseinua, erabili beharreko teknologia, gestio ekonomikoa... hauek eta beste batzuk hilabete gutxitan geureganatu genituen.

Herri aldizkarigintzaren munduan denok ginen berriak, hau dela eta esperientzia zabal bat zuten iturrietara jo genuen, hauek inguruko aldizkari eta udaletxeak ziren. Arrasate, Bergara, Eibar, Elgoibar, Bizkai, Arabako eta Nafar aldizkariekin harremanetan ipini ginen eta hortik gure herri aldizkaria izango zenaren nondik-



Argazkiak atera, galderak pentsatu, zuzentzera bidali... Grabagailu eta argazki kamerarekin egiten dute lan Gentrebistetakoek. Nork ez ditu ezagutzen?

norakoak zehaztu genituen.

Beraz fase gogorrena izango zenari heldu genion. Dena egiteko zegoen, diseinu lanak, erabili beharreko teknologia eta baliabideez ikasi, lan taldea osatu, dirua lortu...

Baina guzti honetan funtsezko ekintza bat dago, herritarrei proiektuaren berri ematea alegia. Ekintza honek bultzada handia eman zigun, eta ate asko ireki era berean. Ateetako batek guztiz beharrezko a genuen dirua lortzeko aukera ireki zigun, Ozkarbikemandako mailegua zen hau. Diruaz gain toki bat

lan egiteko eta garrantzi handiagoa zuen beste gauza bat, konfidantza.

Asko zarete oraindik gure lantokia ezagutzen ez duzuenak, hurbilduz gero, aldizkari bat ateratzeko behar diren baliabide teknikoek ohartuko zarete.

Dena den, ez gara ordenagailu eta makinaz osatutako talde bat soilik; hilabeteekin jendea hurbilduz joan da, eta hasierako 5 pertsonak ia 20ko taldea osatzen dugu orain eta beste hainbeste kolaboratzailek ere parte hartzen du.

Hilabetero lanean

Lan taldea osatzen dugun guztiok ikasleak gara; beraz, lan gehiena asteburuetan egiten dugu. Hilabeteko lehen larunbatean elkartzen gara gaiak zehaztu eta eginbeharrekoak banatzeko. Hemendik aurrera bakoitzak bereari ekiten dio. Batzuk kolaboratzailei deitu, elkarrizketarekin gelditu, udaletxera jo informazio bila... Beste batzuk diru kontutan aritzen dira, aurrekontuak prestatzen, errenta aitopenak egiten, txoste-



Hamabi hilabetetako laburpena, "aurpeirik onenekin". Urte beteko historia biltzen dute azal hauek.

nak egiten... Publizistak ere hor aritzen dira, bezeroak lortuz, fakturak egiten... Ezingo ditugu ahaztu argazki taldekoak edo hilabete bukaeran txukun-txukun aldizkaria aurkezten duen maketatzailea. Azkenik, atezate hor ibiltzen dira eskolako umeak aldizkaria lau haizetara eramanez.



Banaketakoek, marka berriak haustu dituzte hilabetetik hilabetera. Hauek baino azkarrago eta hobeki ez du inork egiten. Aldizkari egin berriak !!!!

Esaldi gutxitan laburtu dugu azken urte honetan hilabetez-hilabete egin dugun lana, baina azken momentuko eragozpen asko izaten ditugu sarri eta askotan gaindiezinak dirudite.

Sarri galdetuko zenioten zuen buruei zeri esker bizi den aldizkari hau, ba gaur egunean komunikabide gehienak bezala, publizitatetik. Hilero gure aldizkarian beraien publizitatea ipintzen duen tabernariak, dendariak edo enpresariak aldizkari inprimatzeko behar dugun dirua ematen digu. Gainontzeko diru laguntzak ekipamendu teknologiko eta mantenurako erabiltzen dira. Gainontzeko aldizkarietako desberdintasuna, hemen ari garenok ez dugula txakur haundirik irabaztenda, hau haseeratik argi gelditu zen printzipio bat zen.

Dena den esperientziak asko erakusten du, eta guk ere gure hutsetatik ikasten dugu; horregaitik egunetik egunera profesionaltasun haundiagoa dugu, kalitatea hobetzen doa eta hori batik bat guztiok ematen diguzuen erantzun positiboan atzematen dugu.

Lan taldeak bere gain erantzukizun haundia hartu du, eta hilerokohelburu bihurtu: elgetar guztiak izan dezatela herriko

berriak euskaraz irakurtzeko aukera; era berean ate ireki bat izan dadila, zer -nahi euskaraz adierazteko. Helburu hau betetzen da eta erantzuna ezin hobea izan da. Horregaitik esaten dugu, Goibekokale, Elgetako Aldizkaria, Elgetarron Aldizkaria dela.

Etorkizuna aurrean dugula

Urtemuga aitzakitza hartuta, aldizkariaren itxura aldatu dugu eta edukiak gehitu. Lau orrialde gehiago izango dira: Sukaldaritzak, Elgetako Baserriak eta Angiozarko Partia Angiozartik.

Sukaldaritzako sailean jaki goxoak prestatuko dizkigute Elgetako elkarte eta tabernetan, eta hileroko lehiaketan zozketatu. Baserriei buruzko atala, historia pixka bat berreskuratuko dugu eta hainbat txoko eta sukaldeko giro ezagutu. Azkenik, Angiozarko auzoaren tartea izango dugu. Orrialde hau berezia da, zeren Elgetak hain hurbil izan duen auzo honekin beti izan du harreman haundia, azken urteetan hainbeste nabaritu ez bada

ere. Esperientzia berri honekin, betiko bideak berriz elkartzea espero dugu, denok denon berri azkarrago eta zuzenago jakin dezagun. Angiozarren ere berriemaileen taldea eratuta dago eta hileroko hango berri jakingo dugu.

Aldizkaria haundituz joan den eran, irakurle kopurua ere asko igo da. Haseerako

400 aleak ez dira. Angiozarren banatzeko, Elgetan edo kanpora bidaltzeko 600 aleko tirada dugu orain.

Mila biztanle eskaz eta tamaina honetako proiektuan sartuta egotea ez dagutxi. Herri txikiak, toki gutxi izaten dute gainontzeko komunikabideetan, eta bestetik sarri ez gara gure herriko berriez ohartu ere egiten. Beraz herri aldizkari-gintzak lan haundia du momentu hauean. Informazioa eskeintzeaz gain, lan hau euskaraz egin nahi dugu eta bide batez, Elgetan hitze-

giten den euskalkiari toki bat utzi, nongoak garen ahaztu ez dezagun eta gure ondorengoek euskararen aberastasuna ezagutu dezaten.

20 orrialdek osatzen dute Goibekokale orain, baina pertsona gehiagok egiten dute guzti hau posible, Elgetar guztiak hain zuzen ere. Hori dela eta, Zorionak ematea baino ez zaigu gelditzen eta etorkizunean orain bezala gurekin jarraitu dezazuela eskatzea.

Angiozarri buruzko orrialdearekin bertako berri jakingo dugu zuzenago. Horrela bi herriak berrelkartzea espero dugu lehenagoko urteetan bezala.

Gure hutsetatik ikasiz, geroz eta profesionalagoak gara. Horregaitik egunetik-egunera kalitatean hobetuz goaz. Emaitzak onak direla ondorioztatzen dugu herritarren erantzun ezin hobearen aurrean..



Martxelo
OTAMENDI

Herri aldizkarien beharra

Euskararen polisemiarekin jokatu nahi izan dut kolaborazio honen izenburua asmatzerakoan. Herri aldizkariak egiten duten beharra (lana) alde batetik eta, bestetik, herri aldizkarien beharra, handia gainera, duela euskarak. Euskal Herria osorik hartuta ere herri txikia da gurea, euskaraz dakigunok ez hara %25era iristen kontaketa baikorrenaren arabera eta gutxi horien artean euskaraz irakurtzeko trebetasuna landu dutenak are gutxiago oraindik.

Zer egin orduan euskarazko irakurketa sustatzeko? Hamaika kanpaina egin dira euskalduna (euskaraz irakurtzen trebatua den ala ez kontutan hartu gabe) euskaraz irakurtzera bultzatzeko. Baina, Arrasate Pressekoek duela urte batzuk erakutsi zuten bezala, irakurlearengandik gertuen dauden kontuen gainedo gaiak eskainiz gero, errazago lortuko dugu euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez daukanarengan irakurketaren bidezko jakinmina piztea. Horixe da nere ustez, beste batzuk zeharkako trebakuntza deitu izan diote horri, herri aldizkarien fenomenoaren ekarpenik garrantzitsuenetakoa bat. Milaka lagun pasatu dira, herri aldizkarien arrakastari esker, ezer ez irakurtzetik astero-hamabostero-hilero zer edo zer irakurtzera. Gure, EUSKALDUNON EGUNKARIA egiten dugunona, erronka da orain, herri aldizkariak egin duten lanaz baliatuz, irakurle berri guzti horiei gure egunerokoa erosi eta irakurtzeko zubia eraikitzea.

Lan bikaina egiten ari dira euri zaparradaren ondoren perretxikuak bezala sortu diren herri aldizkariak. Gai izango ote gara irakurle berri horietako batzuk beste mota bateko irakurketen eesparruraa eramateko? Zuk irakurle daukazu hitza, baina ez zuk bakarrik; baita beste esparru horietan lanean ari garenok ere.

Goibekokaleko lankideontzat

Elduainen orain hamar urte, oraindik ere neronen burua harritu egiten da, Elduain irratia sortu genuen. Izen horixe jarri genion, ustea ere izan guk eta ponpoxo-ponpoxo esaten genuen izena geneukan mikrofono xaxtarretatik. Elduain, ez dakit aditzera izango duzuen, oso herri ttikia da, berrehun biztanle pasatxo izango ditu; sasoiko gazte dezente bada eta gauzak egiteko gogoia ere bai. Orain hamar urte otu zitzaigun, bada gure artean teknikak menderatzen dituen bat, "radioa" jartzea. Erraza omen zen, "kitt"-a erosi, mikrofonoa eta musika jartzeko pletina, eta halaxe egin genuen. Hantxe sortutako irratia-hizlaria naiz ni askok sinesten ez badit ere. Ondo baino hobeto pasatzen genuen guk irratsaioak eginez, programazioak antolatuz, jendeari gustoak galdetuz. Kanpotik begiratuta huskeria dela pentsa liteke baina hain herri ttikia izan eta oraindik "Udal-Irratien" mugimendua, Euskadi Irratia" bera ere sortzeko zegoenean "Elduain Irratia" sortua genuen guk. Horrek irratia egiten ez dakit erakutsi zigun baina gazteen artean, herrian sekulako mobida antolatzenko bai behintzat eta pentsatutako gauzak egiteko ere bai; eta ez da gutxi. Herri edo hiri handiagoetako gaztetxoaskok beharko luke horrelako gauzak egiteak ematen duen bizi-eskarmentu gehixeago. Mesede galanta luke batek baino gehiagok.

Goibekokalek urtebete kunplitu duela eta etorri zait hau guztia burura. Elgetan gehiago zarete baina ez izugarri ere eta sekulako meritua du urtebetean aldizkaria egin izanak, txukun eta dotore egin izanak berriz doblekoa. *Goibekokale* bezalako aldizkari bat egin izana herrian bertan eskertuko duzue bere komunikazio funtzio hori fin-fin bete duelako baina egiten duzuenok ere asko apreziatuko duzue orain ez bada urte batzuetara metatzen ari zareten esperientzia nahiz beharbada orain aldapa eta malkar asko izan bidean. Animo *Goibekokaleko* guztioi eta hainbeste mimorekin sano-sano hazi duzuen urtebeteko aldizkariari eutsiz segi. Zuek behintzat estimatuko duzue. ZORIONAK.

Jaime
OTAMENDI



EITBko kazetaria

AURRERA BOLIE!

Oiñ dala urtebete, *Goibeko kaleko* karretero aparten gaiñian berba eitten zan aldizkariko lehengo alian. Ez dalakuan be, gure burdixak eta karreteruak urtebeteko biria eiñ dabe.

Ez zan ez erreza sinistia, inguruko herrixetan eitten dien aldizkarixak ikusitta, Elgetan holako proiektu batek aurrera eiñgo ebanik. Baiña itxuria danez, gogua daonian eta proiektua aurrera etartzeko biharra eitteko jentia prest daonian, gauza danak eiñ leikezela.

Gure buzoietan *Goibeko kale* jasotzen dounian azkena besterik ez dou ikusten, hala ta be, aurretik eiñdako ezkutuko biharra ez da hutzan hurrengua. Ez orraitiki! Bertan dabizenak garbi laga dabe aldizkarixa hilero etara leikela itxuroso, eta, zela edo hala, dakazen helburuak betiaz. Kontuan euki bihou beti, honek gaztiok ez diela profesionalak; bertatik ez dabe ezta txakur-haundi bat be jasotzen. Inguruko herrixetan, berriz, gutxien danian be, bertara bakarrik dedikatzen dan persona bat dake soldata batekin. Gaur egunian duhako honek biharrok gutxi ikusi, eta

**Bertan dabizenak
garbi laga dabe
aldizkarixa hilero
etara leikela
itxuroso, eta, zela
edo hala, dakazen
helburuak betiaz**

Hau dala eta, ezin eskatu gauza bardiñak batzuei eta bestiei. Holan biharra eittiak, ez dalakuan be, jentia nekatu eta erre eitten dau; proiektu bat aurrera eruateko odol barritzia ezin bestekua da: jente gehixau biha dau *Goibeko kaleko* ideia eta gauza

barrixekin.

Dana dala, inportantiena da gure karreteruak plazan egotia harrixari aurrera eraitteko prest, eta ez badaezpadako irixekin! Ezkerreko iri gorrixa, zoritxarrez, ez dakau sasoiko, eta eskerrak babesle edo patrozinadoriei, bestela ez dao plazara urtetzerik. Ez litzake gatxa izango sasoiari jartzia; aparteko laguntzatxoren bat besterik ez dau bihar, - eta ez da dopiña-. Laguntza hori emotia gurako baleu babesle barri batek, toki aproposa daka gordeta Diputaziñuaren eta Eusko Jaurlaritzaren anunziuen onduan. Holan gure probiak bedeinkaziño danak eukiko littuke. Eskumakuak, horrek bai tira eiñ! Elgetako herrixak (irakurliak-ikusliak) dakan beste inddar daka honek!

Proban hasi ezkerre aurrera eittia onena, eta danok batera eitten ba dou, bixkorrago joango ga. Posturak eittekotan goittik hartu trabesak. Hasieratik pentzau honek karreteruok ez diela geldittuko, eta irixak ondo manejaiko dittuela plazan. Ahal bada behintzat, ez deila amaittu sekula probia: babesliak izan daittezela, irakurliak ez daittezela sekula aspertu eta karreteruak, zer esanik ez, hola jarraitu urte askotan.

Amaitzeko, urteurrenak eta ospatzeko dienez, eta guk, ondiok behintzat, antidopiñik ez dakaunez, ospatu daigun bihadan moduan urteurrena eta hurrengo datozenak be bai.

E. Gorrotategi
A. Telleria



GRONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.
Tel: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.

VIVO
JANARI DENDA

**M^a JESUS
ARRAZOLA**

Tel: 76 81 31

ENEKO GOIA: "ALTERNATIBA DEMOKRATIKO BAT IZAN NAHI DUGU EUSKAL HERRIKO GAZTEENTZAT".

24 urteko donostiarra da Eneko Goia. Berak Gipuzkoako EGI-n egiten du lan. Bera izan da koordinatzaile lanetan aritu dena aurtengo EGI-ko akanpadan. 1.000 gazte inguru bildu ditu aurtengo topaketak Elgetan, "Euskadi askatzeko, bakeari aukera lemapean". Egun hauetaz eta talde honen nondik -norakoetaz aritu gara Eneko Goiarekin.

EGIk, Hego Euskal Herriko hiriburu eta herri askotan ditu bere ordezkariak. EAJ sortu zenetik 100 urte badira aurten, EGI-k ere ia horrenbeste baditu. Bere indar talde nagusia Bizkaian aurkitzen bada ere, gazte mugimendu honen ekintzak "geroz eta nabariago egiten ari direla gai-nontzeko probintzietan" uste du Eneko Goiak.

Bide berriak jorratzen.

Enekoren ustez, "EGIren helburua, gazteei alternatiba demokratiko bat eskeintzea da, Euskadiren askatasunerako. Horretarako eta aurtengolemak adierazten duen bezala, bakeari aukera eman nahi diogu".

*Eneko Goia:
"Herritarren harrera oso
ona izan da ; behar
genuen laguntza eta
giroa aurkitu dugu".*

Independentzia, askatasuna, intsumisioa... ez dira oraintsu arte agertu honen zabal EGiko artean: "agian gure huuts bat da hori, baina jakinarazi nahi duguna da, independentzia ere gure helburuetako bat dela, beste batzuen ahotan gehiago entzuten bada ere".


Gazteen mugimendu honetan 28 urte bitarteko jendea dago sartuta. Politika egiteaz gain, ekintza ugari antolatzen dituzte: haur eta umeekin kanpaldiak, gazteentzako informazio bulegoak... Azken honek arrakasta handia du. Ni neu aritzen naiz horrelako baten lanean. Gaur egun

kontsultagai nagusia, intsumisioa eta objezioa dira eta era berean gazte askorentzat kezka handi bat. Astero 10-15 eskutitz jasotzen ditut honen inguruan. Nere eginbearra, aukera guztiez informatzea da, ez zuzenean alde batera edo bestera bultzatzea. Honetaz zerbait jakin nahi duen gazteari, alternatiba guztiek zer eskeintzen duten esaten zaio eta ondoren, aldeko eta kontrakoak ezagututa berak egiten du aukera".

Beste ekintzen artean ere, gisa honetako kanpaldiak antolatzen dira, "egun hauetan, ondo pasatzeko aukera eskeini nahi diegu gure taldeei. Elkarturik eta egun batzutan solasaldirako eta festarako tarteak izaten ditugu".



Elgetako zelaiak desagertu egin ziren kanpinen azpian.



Goizeko lehen orduetan jendeak aurpegi hauek erakusten zituen.

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

ALDI DENDA (GRUPO IFA)


IGANDE GOIZETAN ERE ZABALIK: 9-12.

Andra Mari Plaza 2. Tel: 76 80 98.

Orain arte EGIko egun hau Bizkaia edo Araban izan dira, eta aurten Gipuzkoan egiteko beharra ikusi dute. Horregaitik hainbat udaletxetan egindute eskaria eta aukerak anitz: Hondarribia, Arrate, Ormaiztegi... Baina herri txikiak nahiago dituzte eta Elgeta txikia izateaz gain baldintza onak eskeintzen dituen leku batean omen dago antolatzaileentzat. "Askotan, herrietatik kanpora egiten ditugu gure topaketak, baina udalak, herrian bertan egiteko aukera eskeini zigun, eguraldi baldintzak ekar dezaketen ondorio edo beste edozein arazo saihesteko. Elgeta aukeratzeko ausnarketa asko egin genituen, kontutan izanik azken topaketetan arazoak izan ditugula beste gazte talde batekin, baina ezin gara beti beldurpean bizi eta guk aurrera jarraitzen dugula adierazteko aukera dugu honela".

Mitoak apurtzen.

Herriarren harrera oso ona dela ziurtatu digu Eneko Goiak. "Jende jator asko dago Elgetan eta



Besteak beste euskararen garrantzia goaipatu zuen Xabier Arzalluzek.

behar genuen laguntza eta giroa aurkitu dugu. Herritarrek ere gurekin nahastu dira eta harreman ona egon da. Gisa honetako kanpaldiak aukera ematen digute EGIko gazteak besteak bezalakoak garela erakusteko. Mito bat dago gure inguruan baina jende arrunta gara, edozein gazte izan dezaken arazo eta burukominekin".

Martxoaren azken asteburu hau antolatzen makina bat egun pasatu dituzte. Kanpaldiko inguruak txukuntzen, ura eramanez eta iturriak eginez, pasabide eta eskilarak, megafonia eta argiztatze sistemak, komunak eta txosnak kokatzen... Aste baten buruan, Elgetako zelaia hotel haundi batetan bihurtu dira. Hiru egunetarako lan asko egin da eta antolatzaileen esanetan emaitzak oso onak eta baikorrak izan dira. Hasera baten 3.000 gazte biltzea espero bazuten ere, gutxiago izan direla aitortu dute. Hala ere, eguraldia lagun izanik jai ospatzeko gauza gehiago ez zutela behar adierazi dute.

Honelako egunetan gaua izaten da mugikortasun haundiena eskeintzen duen momentua, eta kaleetan jende asko biltzeaz gain, zikin eta zabor asko biltzen da. Horregaitik eta udaletxeak horrela eskatuta, enpresa pribatu bat alokatu zuen antolakuntzak, goizero kaleak garbi eta txukun esnatu zitezten. Lan hauek, asteleheneraino luzatu ziren, Elgetari eguneroko aurpegi lasaia itzularaziz. Dena den, larunbat gaez eskola zaha-



Eneko Goiarekin batera, Joseba Egibar eta Xabier Arzalluz. Denek azpimarratu zuten Elgetaren paperra guda garaian.

ren inguruan triskantza ederra agertu zen, pertsianak apurtu eta erretzeaz gain, zikinez gainezka agertu zirelako igande goizaldean. Honekin batera, EAJko zinegotzi baten kotxeko gurpilak zulaturik agertu ziren.

Nagusienen txanda.

Ostirala eta larunbata festa giroan pasatu eta gero, igandean mitinpolitikoa egon zen. Elgetako plazara Xabier Arzalluz, Joseba Egibar eta Asier Aranbarri azaldu ziren. Komunikabide ugari biltzeaz gain, lo edo erdi lotan zeuden hainbat gazte hurreratu ziren, beraien buruzagi politikoei entzuteko asmotan. Hiru hizlariek Elgetak guda garaian bete zuen funtsezko papera azpimarratu zuten. Honekin gazteei historia ahaztu ez dezaten eta Elgetan gertatukoaz ikasteko eskatu zien. EAJko buru den Xabier Arzalluzek zera esan zuen honen inguruan: "liburu gehiago eta kalimotxo gutxiago".

Hitzaldi guztia euskera hutsean izan zen eta Xabier Arzalluzek euskeraren erabilpen garrantzitsuaz aritu zen eta bere kontrako iritzia jakinarazi zuen, euskera politikoki soilik erabiltzen dutenei.

PANADEROKUA TABERNA

CONCHI IDIGORAS
LARUNBATA ETA IGANDETAN
BERTAKO BABARRUNAK
SAIHESKIA ERRETA

ELGETA

TEL. 76 82 73

M^a Karmen

Lenzeria

Lenzeria eta
kosmetika gaiak.

Salbador zeharbidea.

Tel: 78 90 40



KONTXI ARRANDEGIA

Salbador 5 Tel: 768009

SASKIBALOIA: NAHI ETA EZIN

Ez da erraza Estampaciones Elgetari gertatzen zaiona ulertzea. Azken zazpi partiduetatik bost galdu dituela esan ondoren, txapelketa irabazteko aukeran egon dela esatea ez da erraz ulertzen baina horrela izan da.

Galdu dituen partiduak, bat edo beste izan ezik, azkena segundutanizandira eta adibide gisa azken partidua dugu. Txapelketan lehenengo doazenen aurka - zihuraski txapeldunak izango dira minutu baten faltan lau puntuko aldea izanik (49-53) ezin izan zioten alde horri eutsi eta aurkakoak berdintzea lortu zuten. Luzapen baten beharra izan zen. Azken

emaitza 57-55ekoa izan zen Elgetakoen aurka.

Orain hirugarren postua lortzeko jokatu beharko dute eta noizbait, nahiz eta berandu izan, eduki duten sorte txarra aldatzea dadin espero dute.



Hirugarren postua lortzeko lehia gogorra izango dute Elgetarrek.

PELOTA: OZKARBI EUSKAL LIGAKO TXAPELDUN

Ozkarbi Pilota Elkartek Lehen Mailako txapelketa irabaztea lortu du. Garaipen horri esker datorren urtean Ohorezko Ligan jokatzeko aukera izango dute.

Finala Matienako pilotalekuan jokatu zen eta dagoeneko Ohorezko mailarako txartela eskuan izan arren Lehen Mailako txapeldunak nortzuk izango ziren erabakitzea falta zen. Partidu honetan Ozkarbiren aldetik Berraondo eta Iñurrategik jokatu zuten eta De Santos eta Karrete izan zituzten aurkako. Partidua ez zen oso ona izan hasiera-hasieratik Ozkarbik aurrea hartu zuen. Lehia honen

hasieran azpimarragarriena Berraondoren pilotakada ikusgarriak izan ziren baina lehia erdialdera pilota bat sartu zitzaion eskuan, eta aurretik lortutako abantaila mantendu besterik ez zuten egin. Azken emaitza 22-17koa izan zen.

Deba Arroko txapelketari dagokionez, esan, bai infantiletan, jubeniletan eta baita nagusietan ere hurrengo faserako sailkatzeko aukera handiak dituztela.

4 t'erdiko txapelketa martxan da dagoeneko

Aurten, hasierako partiduak, Elgetan jokatzear gain Armaixon eta Eskoriatzan ere jokatu dira lehenengo kanporaketak bizkorrago joan daitezen.

Abonoak ere atara dituzte Ozkarbi elkartekoak eta 4 t'erdiko txapelketaz gain Deba Arroko finalak ere barne izango dira. Bikoteek 4000 pezeta ordaindu beharko dituzte, gizonezkoek 2500, emakumeak 2000 eta gazte eta jubilatuek 500.



**METALEN
SALEROSKETA**

ANDONI BOLINAGA

Salbador 7
Tel-Fax: 768064 Elgeta



IRAMA

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIOAK ETA MANTENTZE LANAK
24 ORDUKO ZERBITZUA MENSATEL: 900282828
Abonatua 247262 Tel: 789057- 768025 Salbador 3


FUTBITO: EZ DA ALDAKETA NABARMENIK IZAN AZKEN HILABETEAN

Futbito txapelketak ez du aldaketa nabarmenik izan. Mutiletan Zeleta eta Heskeitakoek tinko diraute beraien postuetan. Txapelak gertutik jarraitzen die azken lau partiduetan garaipena lortu ondoren. Urienek ere, ulertzekoa zen bezala, gora egin du azken ihardunaldietan eta finalerdietan sartzeko lehian dago dagoeneko.

Nesketan berriz, Txalaixok dirudi txapelketa irabazteko aukera gehien dituen taldea orain arte jokatuako partiduetan talderik onena dela erakutsi baitu.

Azken ihardunaldietan berriz, ez zen ezustekorik izan. Urienek lehenengo partidue-

tan, arazoak izan bazituen ere, Ay; Te Va-ri irabaziz 7 eta 5eko emaitzaz. Bigarren eta hirugarren partiduetan emaitzari dagokionez behintzat nahiko argiak izan ziren, Txapelak Iramari 13-4 irabazi baitzion eta Patxi antzerako zer bait egin baitzuen H.H.H-rekin (14-4).



Joixon Bertanek ez du oraindik partidurik galdu.

	Jok.	Ir.	Ber.	Ga.	Pun.
1.- Heskeiak	6	4	2	0	10
2.- Txapela	6	4	1	1	9
3.- Zeleta	6	3	2	1	8
4.- Urien	6	4	0	2	8
5.- Patxi T.	7	2	3	2	7
6.- H.H.H.E.P.	7	2	1	4	5
7.- Irama	7	1	1	5	3
8.- Ay! te va	7	0	2	5	2

Hurrengo ihardunaldia

Zeleta - Urien Irama
Txapela - Hesk Urien
Joixon B. - Ri Rau Gazt.
Gazt. - Txal. Joixon B.



I
L
E
A
P
A
I
N
D
E
G
I
A

M^a ESTHER

Tel: 76 81 67

P
A
T
X
I

T
A
B
E
R
N
A

Salbador 3
Tel: 768093

Fernando
Ojanguren

M^o Jesus
Mujika

Hozkailuak eta
izozkailuak
aire
girotua.



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

GORROTXATEGI
HARATEGIA

Andra Mari Plazan zure etxetik gertu.

Tel: 76 81 72.

OSTATU
JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pta.
Karta

GURE BASERRIAK AUZOZ AUZO (I)

Urte bat bete ondoren hemendik aurrera *Goibekokalek* orri gehiago izango ditu, eta horrekin batera Elgetako baserriei buruzko erreportai sail bat izango duzue hilero-hilero. Dударik ez egin batez ere gazteontzat interesgarria izan daitekeela; izan ere, guztiok ezagutzen ditugu baserriren batzuk, baina beste askoren berri gehiegi ez dugu. Zaharragoek, berriz, ondo baino hobeto ezagutzen dituzte baserri guztiak, bakoitza non dagoen eta bertakoak zeintzuk diren edo ziren, baina hala ere, beti izaten da aukera gauza berriren bat ikasteko.

Denboraren eragina bistakoa da gauza guztiengan, eta baserriekin ere hala gertatzen da. Baserri asko galdu egin dira, beste batzuk sortu, berritu eta abar. Denborarekin baserrien izenak ere aldatzen joan dira, eta horren adibide behean agertzen den baserrien zerrenda duzue. Zerrenda hau 1625ean idatzitako liburu batean agertzen da. Liburu horrek Gipuzkoaren berri ematen du herriz herri, eta egileak berak esaten duenez baliteke datu batzuk falta izatea edo oker jasota egotea, baina berak herri bakoitzeko berri ematen zionak emandako moduan jasotzen ditu. Gainera, liburua ez zen argitaratu askoz beranduago arte, eta aldaketa batzuk izan zituen. Elgetako baserrien zerrenda honetan kontutan izan behar duzue garai horretan Ubera eta Angiozar ere Elgetakoak zirela. Azkenik esan badirudiela nolabaiteko ordena jarraitzen duela mendi eta auzo batetik bestera.



Hona hemen 1625ean jasotako Elgetako baserrien izenak:

Jaolaza Torre, Marquiegui, Aranzaeta, Aranzaeta, Izaguirre, Oyanguren, Iturri, Iturri, Aranzaval, Ceceaga, Ceceaga, Aguirre Ceceaga, Aguirre goicoa, Aguirre becoa, Irarraga, Irarraga, Olaineta, Irazaval, Urrupaiti, Echavarria, Echavarria Urrutia, Egurvide, Egurvidezar, Urruxolaegui, Urruxolaegui, Albistegui, Zavala, Eguiluce, Sostoa garaicoa, Sostoa azpicoa, Ansotegui, Ansotegui, Icazerre, Lapurdi, Bazterrica, Larraguibel, Larraguibel, Egocheaga garaicoa, Egocheaga azpicoa, Iturbe, Asula, Assurza, Lasarte, Posada, Ariola garaicoa, Ariola azpicoa, Udalga, Arroeta, Sagastiguchia, Aguirre Uriarte, Altube, Albisua, Olaegui, Olaegui, Andudi, Berraondo, Uriburua, Meitegui, Munazuri, Calvidos, Calvidos, Mendraracorta, Olaicorta, Beicua, Arroeta garaicoa, Otamendi.



Agurlaeta beheko baserria, Angiozarko mendipean ia galdurik dago. Sakonune horretan ixiltasuna da nagusi.



Bastarrikako baserria da eta udaberriko lorez jazten hasia.

Angiozarkoak:

Arregui, Arberorbe, Orbe, Cabarte, Alcuaran, Garrastegui, Anguiozar, Elexalde, Irigoyen, Irigoyen, Loidi, Ascasibar, Jugazqueta, Jugazqueta, Berrondo, Arexaurrenaga, Arexaurrenaga, Jauregui, Galarraga, Galarraga, Loiti, Iribe, Arretse, Gongeta, Altuna, Pagadigorria, Sagasta, Oronsarri, Lasarte urritia, Aguieta, Mendigutxia.

OJANGUREN BASERRIA SAN JUAN BAILARARA BEGIRA



Udaberriarekin Ojangureneko inguruak loratzen hasi dira. Elgetak toki eder asko ditu ikusteko, aukeretako bat San Martingo Ermita ikusiz, baserri eder hau bisitatzearena da.

Baserriei buruzko atal hau zabaltzeko baserri bat aukeratu behar eta Ojangurenera joan gara.

Arantzeta auzoan dago kokatua Ojanguren baserria, Azko-nabieta mendiaren magalean, San Juan erreka bailarara begira. 3 eraikuntza ezberdinez dago osatua: eraikuntza nagusia, eta bi etxola. Bere ataria hego ekialdera begira dago, eguzki begitan. Atari honen arku gainean armarri bat ikus daiteke.

Baina baserri honen berezitasunik nabariena etxe aurrean duen ermitatxoa da, ermitatxo hau Martin Donearen omen-enez eraikita dago.

Etxeko nagusiak Felix eta Antoni ditugu. Erreportai hau prestatzera

joan ginenean urrezko ezteiak ospatu berri zituzten, zorionak beraz. Prestu hartu gintuzten, eta baita makina bat istorio kontatu ere.

Lehenengo galdetu genie-n, baserria noiz eraiki zuten izan zen. Beraien esanetan, armarran zerbait jartzen duen arren ez dakite data ziurra. Gutxi gora-behera

ren ahaideek eraikia izan zela ere argitu ziguten.

Ojangurenei buruz argibide hauek lortu ondoren, baserrian orain dela 50 urte nola bizi izaten zen galdetu genie-n. Felix eta Antonik kontatu zigutenez oso bizitza gogorra zen. Makinariarik ez zegoenez ordu asko eman beharra zego-



en, baserriko biharrak aurrera ateratzeko. Eta ez omen zegoen oportetarako denborarik. Baina lan egin behar hori baino latzagoa omen zen eguraldiaren kapritxo-enzai egon beharra. Egun askotako lana ekaitz batek ezerezean utzi baitzezakeen.

Beraien hitzetan, lehenago baserrietan lurrak lantzeko lagunt-

o r a i n
dela 400
edo 500
urte erai-
kia izan
o m e n
z e n .
Elgetako
e t x e
zaharrene-
tari-
koa dela
ere esan
ziguten,
gainera
beti izen
berbera
manten-
du duela
eta heu-

za behar zenean kriauak hartzeko ohitura zegoen. Batzuetan tripa-ordez egiten zuten lan eta beste batzuetan diru truke. Beraien etxean diru truke lan egiten zuten kriauak egon omen ziren. Askotan morroi hauek familian integratuta bizi ziren.

Felixek argindarra beti ezagutu omen du Ojangurenen. Hasi-rra batean familiak zuen errota bati esker eta beranduago Aixolan eraiki zen zentralari esker.

Azken 50 urte hauetan Elgetako paisaia zeharo aldatu dela ere esan ziguten. " Lehenago Elgeta zelaiez eta soroz inguratua zegoen, sekulako arto eta gari soloak. Piskanaka-piskanaka ordea , jendea baserrietik kalera etorri den heinean lehenago soro zen tokietan pinua sartzen hasi zirengaur egungo egoerara heldu arte. Heurak ere jubilatutuan ostean etxe aurreko hektarea batean ez, beste solo denetan pinua sartu omen dute.

Kontatu zigutenez pozik bizi izan dira baserrian, eta ez dute kalera etortzeko tentaziorik eduki. Lanagaitik ez balitz bizitzeko lekurik lasaiena da baserria.

Baina baserri gehienetan bezala katea apurtu egin da. Beraiekin bizi den semeak (Joxek),kalean dihardu lanean. Baina baserrian biziz gero beti dago egin beharreko lanen bat kalekoa bukatu ostean.

Ojangurenekin egin dugun bezala , Elgetako, Angiozar-ko eta Uberako beste baserri batzuk ezagutzeko asmoa daukagu hurrengo aletan. Honekin kaletarrei baserriei buruzko istorioak eta gure ahaideen bizimodua hurbiltzea espero dugu. Baserriak Elgetar-ron bizitzan garrantzi ikaragarria izan baitu.

Dakizuen bezela, atal hau ikastolakoek betetzen dute hileroko-hileroko. Gainera, oraingo honetan, beraiek egin dute lan guztia: Galderak prestatu, bigarren mailako adinera egokitu, grabagailuarekin elkarrizketatxo egin, garbira pasatu... Hau guztia, ondorengo lerroetan duzuen irakurtzeko.

8. mailakoak kazetaritza ikasi beharra dutenik ere...



Gaurko atalean, 8.mailakook, 2.mailakoei galdera batzuk egin dizkiegu *Goibekokaleri* buruz.

Atal hau berezi xamarra egitea nahi izan dugu, orain dela urtebete argitaratu baitzen lehenengo alea. *Goibekokaleri* buruzko inkesta honetan, Galdera hauek egin dizkiegu gutxigorabehera: ZER DA GOIBEKOKALE? ZER DAGO BERTAN? Hau galdetu arren, denen artean hitzegiten hasi eta batzuk Goenkaleekin ere nahastu dute.

Ez dut irakurtzen. Gehiena Txapas gustatzen jata.

Gizon batzuei berba egiten die zehozkerri buruz. Asmatzeko lehiaketa bat egoten da, kamisetarena. Gizurak esaten dabe.

Kirolen gauzak jartzen dituzte. Kamiseta tokatu zait.

Errebista bat da, gauza asko datoz Elgetako pertsoneri buruz.

Apeliduak eta koloriak ere agertzen dira.

Elgetako pertsonen izenak etortzen dira. Argazkian jartzen dabe nere aitxa batzutan.

Ez dakit zer den. Horroroskopuan gizurak esaten dabe

Lehiaketa baterako kamiseta egoten da, pertsonen izenak esaten dabe, eta gehixau ez dakit. Irakurtzen dotenian, komikixak ez ditut ulertzen.

Horroroskopuan gezurak esaten dituztela diote eta gehienetan kaprikornio agertzen dela. Denei gustatzen zaie lehiaketa. Batzuk Goenkale saioarekin ere nahastu dute eta komikia ulergaitza omen da.

Egileak: 8. mailakoak



Argazkia: Juan Luis Ubera

Gipuzkoako infantiletan lehenengo

Argazkiaren eskubialdean dagoen Jonek, 15 urte zituen argazki hau atera zutenean. Hortik atera zenbat urte izan ditzazkeen erretratu honek. Jose Inaxio Ibarluzea eta Jon Alberdik atera zuten aurrera neurketa hau. Orain profesionaletan dabiltzanen kontra irabazi zuten, adibide bat jartzearren Alustizaren kontra.


Argazki hau utzi digunak ez zuten dudan jartzen orduko pelotaririk onenak zeintzuk ziren: "Alberdi eta Irei zittuan onenak duda barik, Jonek porbenir haundixa jakan gaiñera"

Elgetak Aitor Elkororen aurretik ere izan zituen izen haundiko pelotariak.

Irabazleen artean badaude beste "fitxaje" batzuk ere:

Goitik eta ezkerretik hasita: **Meltxor Telleria, Jose Aramendi, Roman Alberdi, Lupi Redondo** (beronek eraman zituen gainontzekoak Seat 600ean partidura), eta **Juan Luis Ubera**.


Behean ezkerretik hasita: **Patxi Basauri, Jose Iñaxio Ibarluzea** (pilotaria), **Juan Mari Aranzeta** eta **Jon Alberdi** (pilotaria).



Estampaciones **Elgeta**


Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.

MOTA GUZTIETAKO SU ARMENTZAKO MUELLE ETA TRESNAK



100. urte gure
bezeroentzat lanean

ETXEBERRIA LANTEGIAK



MAALA KALEA, 2

TEL: 943 76 80 73

FAXA: 943 76 82 03